



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO GAIXOTASUN HEMORRAGIKO EPIZOOTIKOARI BURUZKO-OHARRA (2024ko abuztuaren 7a)

Atzo, 2024ko abuztuaren 6an, Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoaren (EHE) kasu berri bat diagnostikatu zen Arabako abeltzaintza-ustiategi bateko behi batean, Aramaioko udalerrian. Dagoeneko 2 kasu eta 2 udalerrri daude tartean: Legutio eta Aramaio.

Susmopean dagoen animalia Arabako Foru Aldundiak ABERE Albaitaritza Zerbitzuen enpresarekin duen kontratuaren bidez ezarrita duen Albaitaritzako Aleria Sanitarioko Sareak detektatu du. Animaliak zituen sintoma klinikoaren aurrean, haren odol-lagin bat aztertu da Eskalmendiko Abere Laborategian, eta emaitza positiboa lortu da PCR bidez.

Gaixotasuna Iberiar Penintsulan hazten ari da, eta Salas de los Infantes (Burgos) eta L'Alta Ribagorça (Lleida) abeltzaintza-eskualdeetan deklaratu dira kasuak.

EHE gaixotasun bektorial infekzioso ez kutsakorra da, eta Culicoides generoko intsektuek kutsatzen dute. Behien kasuan, printzipioz, klinika moderatu eta autolimitatzailea sortzen du pare bat astetan. Baina berehala larriagotu daiteke, hainbat zirkunstantzia direla medio.

Ardiek infekzioa jasan dezakete, baina gutxi gaixotasun klinikoa, eta ahuntzek ez dute infekziorik jasaten

Nahitaez aitortu beharreko animalia-gaixotasuna da, eta **EZ die pertsoneri eragiten**. Behi-aziendaren koadro klinikoak klinika moderatua du sukarrarekin, anorexiarekin, aurpegiko edemarekin (konjuntiboa, batez ere), begietako eta/edo sudurreko deskargarekin, listuarekin, disnearekin, eritemarekin edo muturra askatzearekin, herrenketarekin, errapearen eritemarekin, mihia eta konjuntibak puztearekin eta deglutiratzeko zailtasunarekin, animalia hiltzea eragin dezakeelarik.

Gaur egun, gaixotasun horren aurkako txerto baimendu bakarra dago EBn, baina eskuragarritasuna mugatua da.

Ez dago tratamendurik EHErentzat, baina tratamendu sintomatikoa gomendatzen da. Horregatik, **oso garrantzitsua da detekzio goiztiarra eta laguntza-terapia azkar ezartzea** (hidroterapia, hanturaren aurkakoa eta antibioterapia).

Aurreko kanpainan, Arabako Lurralde Historikoan 253 ustiategitan 2.000 abelgorri baino gehiagori eragin zieten kasuen berri eman zen.

Prebentzio-neurriak bektoreen aurkako borrokan oinarritzen dira, intsektizidak eta uxagarriak erabiliz animalietan, garraio-bideetan eta instalazioetan, eta intsektizidak eta larbizidak erabiliz hazkuntza eremuak kontrolatzeko. [Lista de insecticidas de uso en entorno ganadero](#)

Arabako kasu horiek detektatzearen ondorioz, **EZ** da ezartzen Arabako ustiategietatik mugimenduak murrizteko neurriak, penintsulako lurralde osoa jotzen baita eraginpean. Beraz, ez da inolako murrizketarik ezartzen animalia horien produktuen (haragia, esnea, azala, etab.) mugimenduari edo kontsumoari dagokionez.

Informazio hori eguneratuz joango da gaixotasunaren egoera epidemiologikoa aldatu ahala.



Azkenik, gogoratu behar da garrantzitsua dela Arabako Foru Aldundiko Albaitaritza Zerbitzu Ofizialei berehala jakinaraztea gaixotasunaren eragina eta banaketa baloratzeko edozein susmo.

Era berean, al baitariari jakinarazi beharko zaio animaliak berehala tratatu ditzan, animalia-aren osasun egoerak okerrera ez egiteko.

Tel.: 945181818

e-mail: servicioganaderia@araba.eus

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 7a

ABELTZAIN-TZA ZERBITZUA

* Oharrak.

- a) Informazio eguneratua: (esteka) [Enfermedad hemorrágica epizoótica \(mapa.gob.es\)](http://mapa.gob.es)
- b) EREMU MUGATUAN sartutako autonomia-erkidegoen zerrenda (2024ko uztailearen 18an, irailaren 24an): GUZTIAK, SALBU: Kanariak eta Balear Uharteak,